



ZESTOAKO UDALA

## 2024 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA

### JAKINARAZPENA

Honen bitartez jakinarazten dizut, Alkate jaunak. 2024ko urriaren 16an emandako 192.zk duen ebazpena, honako hau xedatzen duena,

**MIKEL ARREGI URRUTIA**, Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakari jaunak, ondorengo kontuan hartuz;

- 2024ko maiatzaren 9an, Zestoako Udalak Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza argitaratu zuen Udalaren Web orrialdean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea 2024ko irailaren 1ean amaitu zen eta epe barruan 2 eskaera aurkeztu dira, eta horiek Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuen informazio batzordeak baloratu zituen Udalbatzak onartutako oinarriak kontuan izanik.
- 2024ko irailaren 25ean, Gizarte Zerbitzuko informazio batzordeak egindako bilkuran dagokion ebazpen proposamena egin zion Alkatetzari, eta horren bidez onartzen diren laguntzak eta horien zenbatekoa zehaztu da, eta baita onartuak izan ez diren kasuetan arrazoiak eman ere.
- 2024ko irailaren 26an, aipatutako ebazpen proposamena publikatu zen Zestoa Udaleko web orrian, publikatu eta hurrengo egunetik aurrera hamar eguneko entzunaldi epea emanez.
- Alegazioak aurkezteko epea urriaren 11an amaitu zen eta ez zen inolako alegaziorik jaso diru-laguntzaren ebazpenaren inguruan.
- Udalaren aurrekontuan laguntzaren inguruan egindako kontsignazio ikusita, eta Alkatetza izanik laguntza ebazteko eskumena duen organoa

### ERABAKI DUT

**LEHENA.-** Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdiaren **behin-betiko ebazpena** ematea.

*Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdia 2024 urterako.*

ONARTUAK	
ONURADUNA (NAN/IFK)	ONARTUTAKOIA (Urte osoa / Hilekoa)
20181****	3.000,00 € / 250,00 €



ZESTOAKO UDALA

**2024 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO  
DIRU-LAGUNTZA**

<b>EZ ONARTUAK</b>	
<b>ONURADUNA (NAN/IFK)</b>	<b>ARRAZOIA</b>
<b>15245****</b>	<b>DIRU SARREREN GEHIENENKO MUGA GAINDITZEN DU</b>

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau diru-laguntza jasotzeko eskaera egin duten interesdun guztiei jakinaraztea eta Zestoa Udaleko web orrialde ofizialean publikatzea.

**HIRUGARRENA.-** Tokiko Gobernu Batzarrak ospatuko duen hurrengo saioan Alkate Ebazpen honen berri ematea.

Jakin dezazun eta ondorio egokietarako adierazten dizut hori, erabakia behin-betikoa dela eta administrazio bideo amaitzen duela jakinaraziz. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean. Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke Zestoako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Zestoan, 2024ko urriaren 16an

IDAZKARIAK

O.e  
ALKATEAK